

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZUMELTZUKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Lehiaketa publikoa, VI-10.094 esparruko, "Zaldiaran" izeneko, ehiza aprobetxamenduarena**

Ariñiz, Eskibel, Gometxa eta Zumeltzuko kontzjuek, nor bere bilkuran, kontratazio espedientea onetsi zuten Zaldiaran izeneko VI-10.094 ehiza esparruko aprobetxamendu zinegetikoa esleitzeko, lehiaketa publikoz.

#### LEHIAKETA

- 1.- Erakunde esleitzaila: Ariñiz, Eskibel, Gometxa eta Zumeltzuko kontzejuak.
- 2.- Kontratuaren xedea: Zaldiaran izeneko ehiza esparruaren (VI-10.094) ehiza aprobetxamendua.
- 3.- Izapidetzea eta prozedura: presako izapidetzea, prozedura irekia, lehiaketa.
- 4.- Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua: hiru mila bederatziehun eta hirurogeita hamabi euro (3.972,00 euro), BEZa aparte.
- 5.- Esleitzeko oinarri irizpideak:
  - Bertako ehiztarien ordezkari eta parte hartzea ehiza esparruaren kudeaketan eta gozamenen: gehienez 5 puntu.
  - Erantzukizun zibileko aseguruaren bermeak: gehienez 3 puntu.
  - Eskaintza ekonomikoa: gehienez, 1 puntu.
- 6.- Behin betiko bermea: esleipenaren ehuneko 5, BEZa aparte.
- 7.- Dokumentazioa eta argibideak eskuratzea: 656 793 223 telefono zenbakira deituz, iragarria ALHAOn argitaratu eta zortzi egun naturaleko epean.
- 8.- Errentamendu aldia: hamar (10) urte.

Zaldiaran izeneko VI-10.094 ehiza esparruaren ehiza aprobetxamendua esleitu ahal izateko, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Sailak berori berritzeko espedientea onetsi beharko du.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioetarako argitaratzen da.

Zumeltzu, 2020ko uztaialaren 27a

*Lehendakaria*

**JUAN MIGUEL SERRANO PORRAS**